



IPURTOTZEKO LUR JAUZIA

Lierni Altuna Ugartek, Aramaioko alkateak, jakinarazten du:

Urtarrilean Ipurtotz ondoko zelai baten lur jauzi handi bat egon zen, Arriola eta Arrikoitiko arteko errepidetik 150 metro ingurura geratu zena.

Ordutik, instituzio ezberdinen atek jo ditugu arazo larri honi irtenbidea eman nahian. Txosten geologikoa enkargatu genuen hasierako ebaluazioa egiteko eta baita uztailean egoerak nola eboluzionatu zuen ikusteko.

Momentu honetan URAREN erantzunaren zai gaude, txosten geologikoen arabera lur barruko erreka eta urek sortu dutelako arazo hau.

Baina egoera larria da eta orain euria hasi dela arriskua asko areagotu da. Azkeneko txostenean garbi ikusten da lur jauzia gertatu zen goiko zelaia ere beherantz datorrela eta hor lur masa handia dago. Txostenean zehazten den arabera orain neurri aringarriak hartzea besterik ez da geratzen urak eta honek ekarriko duen lurrak bere bidea bai edo bai hartuko du eta.

Udaletik URA eta dagokien instituzioei lehenbailehen zerbait erantzun eta egin dezatela eskatzen diegu, beraiek baitira aktuazioak zehazteko eskumena dutenak eta baliabideak hauek gauzatzeko.

Lur jauzi horren eboluzioa jarraitzen ari gara, batez ere euri egunetan, eta arriskua areagotzen baldin bada ahal ditugun neurriak hartuko ditugu beheko errepide eta auzoei begira.

Bitartean, **debekatuta dago, dagoen arriskuarengatik, lur jauzi hori gertatu den azpiko pistetatik ibiltzea.**

Aramaion, 2022ko urriaren 3an
Alkateak